



**ORIO**  
marea bizian

Euskara

**2022**

# EUSKARAZ GAZTE

# SARIAK

## LITERATUR LEHIAKETA

### IPUINAK

- 1. SARIA: Lentejak**  
Garazi Urretabizkaia
  - 2. SARIA: Zaurietan zubiak**  
Ainhoa Mujika Mendia
  - 3. SARIA: Aste bat oporretan**  
Libe Larrarte
- Accesita: Kolore ukitua**  
Aritz Pardina
- Accesita: Aldarrikapena**  
Iona Rekarte

### OLERKIAK / BERTSOAK

- 1. SARIA: Ume salduak**  
Ainhoa Mujika Mendia
  - 2. SARIA: Batek esanak**  
Goiuri Unanue
  - 3. SARIA: Gure bizigaiak**  
Iñaki Iturain
- Accesita: Elbarri**  
Anemi Fernandez
- Accesita: Metaverso bertso-meta**  
Rosi Lazkano

# Lentejak

Garazi Urretabizkaia

—Zer dakau gaur bazkaltzeko? —oihukatu didazu sofatik, Susana Grisoren ahotsari tonu bakar bat ere jaitsi gabe.

—Dilistak! —erantzun dizut erdi irribarrez, garai batean Goenkalen ikasitako kontzeptua ulertuko ez zenuela jakitun.

—Datilak? —bota duzu harriduraz, oraingoan bai goizeroko konpainia duzun programari bolumena kenduz.

—Lentejak, motel, lentejak!

—A! Esate nun, ba, nik txoatzen hasi ote giñan! Ez ahaztu txoixua botatzia! —eta berriz Susanaren ahotsa salako lau pareten artean, ozen.

Salara luzatu dut begirada. Hortxe zaude, Goyaren koadro baten gisan, maja jantzi eta biluziaren arteko lehian. Besoak buru gainean gurutzaturik, eskuan teledistakako mandoa, ahoan txotxa, petxua airean eta gutxienez 96an erositako Abanderado zuri horituak soinean dituzula. «Danteskoa», pentsatu dut nirekiko. Eta, horretan nenbilela, esku bat galtzontzilloetan sartu eta jada paxa idorrak diruditen barrabilak hazkatzen hasi zara. Koskobilo inguruko ile xurien hotsa sukaldetik entzuten dut: krax, krax, krax. Eta atea itxi dut, irribarre txiki konformista batez, «horrela erosi zenuen» nire buruari esanez.

Beste belaunaldi batekoak gara. Norberaren beharrak azken lerroa iganarazten zituen belaunaldi batekoak. Lehentasunak familia eta ahora eramateko zerbait izatea ziren; utikan beste dena! Maitasunean ere ez ginen hautaketan ibiltzen. Bat gustatu eta, normalean, dena *ongi* joanez gero, harekin geratzen ginen, benetan barrenak esaten zigunari kasu gehiegi egin gabe. Desberdin izango zen, akaso, herrigunean jaio izan bagina. Askeago, beharbada. Baina gure etxean eguneroko menua izan zen Jaungoikoa eta Lege Zaharra, eliza, baserriko lanak eta,

postrerako, Arrate irratia. Ezin, beraz, bidetik gehiegi atera. Eskerrak igande arratsaldeetan Aristerrazuko erromerian zertxobait aska gintezkeen. Han ezagutu nuen Joxe Mari. Arin-arin baten osteko dultzemeneoan, dantza eskatu zidan. Ezin ezetz esan garaian gizentasunaren kanon guztiak betetzen zituen Adonis hari. Gaurko irudia etorri zait burura bat-batean: «Zerri guztiei iristen zaie beren sanmartina». Hau da, hau, alperrik galtzea! Eta beste irribarre bat egin dut, nahi edo ez bizia konpartitu dudan horri, ezereen gainetik, kariño amaigabea diodalako.

Denek esan zidaten: «10 urte diferentzia handia da harreman baterako. Orain ez duzu ikusten, baina gerora konturatuko zara». Jendearen hitz jarrioa. Beti zerbait esan beharra. Beti muturra denean sartu beharra. Bakoitza bere posiziotik, bakoitzak etxean duena kontuan hartu gabe. Baina, ei, ez naiz damutzen. Agian arrazoi zutela? Izan daiteke; 65 bete berri ditudan honetan egia da diferentzia pisatzen hasia dela. Ez da apenas etxetik ateratzen; bizitza baserriko lanetan topera pasa eta orain berak dirudi belar-txondorra. Okerra eta puntan konkorra duena. Zaharkitua geratu da zentzu guztietan. Ez du batere eboluzionatu. Eskola zaharrekoa izaten jarraitzen du. Hona bere egunerokoaren kronika laburra: gosaltzeko, bezperako ogi gogorra kafesnetan bustita, *Diario Vasco* irakurtzen duen bitartean; goiza, teledista aurrean; bazkaltzeko ematen diodana jan; siesta; arratsaldean, baxoerditxo bat zaharretan lagunekin; eta, afalostean, aitak herentzian utzitako eta zigarro-papera bezain fina bilakatutako franelazko koadrodun pijama jantzi, orinala ohepean sartu, eta lotara. Kitto eguna. Eta lasai bizi da estruktura hertsia horretan.

Ni, aldiz, gazte eta lorios sentitzen naiz.

Adinean aurrera egin ahala, are eta gazteago. Are eta askeago. Berak ez bezala, ederki aprobetxatu ditut herritartzearen abantailak. Badira 20 urte Laurgaingo baserria saldu eta Aita Lertxundira bizitzera etorri ginela. Eta uste dut hor hasi nintzela benetan bizitzen. Goizero zortzietan puntuan elkartzan naiz nire bilagunekin Muntotik barrena barraraino itzulia egiteko. Giro ona bada, hondartza aldean pintxo bat jan, indarrak hartu eta Ortzaiarakaino itzulia egin ohi dugu. Euria baldin bada, aldiz, ez pintxo eta ez Ortzaiaka: buelta eta zuzenean etxera. Ondoren, erosketak egitera ateratzen naiz. Asteazken zehar Dorronsoro anai-arreben denda zenera, fruta erostera, Keparenera haragitarra eta, asteartez, arrandegira. Ostegunetan, aldiz, Sayaleroko kafearen ostean, azokara. Bazkaria prestatu, gizona bazkatu eta, arratsaldean, gehien maite dudana egiteko denbora hartu ohi dut: irakurri, tarteka idatzi eta, astean bitan, pilates. Ostiral arratsaldean, aldiz, noka ikastaroa eta pintxopotea hango kideekin. Eta bai, ikusten duzuen bezala, probetxua atera diot Ahalduntze Eskolan ikasitako guztiari, sekula baino indartsuago sentitzen bainaiz, ahaldunduago. Eta jarrai dezala bideak. Baina astero jarraitzen dudana errutinaren barnean, bada oraindik aipatu ez dudana arren zirrara berezia sorrarazten didana ekintza bat: larunbat goizetako ile-apaindegirako buelta. Eta gaur ostirala da.

\*\*\*

Sekula baino goizago esnatu naiz, bederatzietan Zarautzen dudana zitaz pentsatzeak sortutako barne-tximeleten matxinadaren ondorioz. Dutxatu, Joxe Mariri kafesnea prestatu eta geltokirantz abiatu naiz. Estomagoa itxia dut nik ezer gosaltzeko. Haize zakarra zubian. Ditudan lau ileak dantzane, nire barnea bezala. Ordu erdi barru han izango naiz: Bittoriren ile-apaindegian. Txikitako laguna dut Bittori. Ondoko auzokoa izaki, elkarrekin pasatu dugu ia bizitza osoa. 13 urteren buelta izango genuen, igande arratsaldeko erromerian, gure lehen garagardoak ostean, batera pixa egitera joan eta elkarri promesa bat egin genionean: «16 urte bete baino lehen ez badugu gizonik muxukatzea lortzen, elkarri

emango zionagu gure lehen muxua». Une kitzikagarria izan zen, gurutzatu genuen begiradan argi geratu baitzen ez genuela bitako inork hiru urteko itxaron-kondena hura pairatu nahi. Biok desio genuela une hartan bertan gure ezpain gazteek bat egitea. Baina, lehen esan dudana bezala, beste garai batzuk ziren. Eta irribarre nostalgiko batez desira erreprimitu eta dantzatzera itzuli ginen. Ondoko urteetan gauzak bere horretan jarraitu zuten: beti geunden elkarrekin, baina sekula ez genuen elkarrizketa hura gehiago aipatu, seguruenik bien buruan iltzatuta egongo zen arren. 15 urte eta 10 hilabete nituela agertu zen Joxe Mari, eta hor puskatu zen frontoi atzeko belardian, kuleroak orkatiletan genituela, Bittori eta bion artean sortu zen magia hura. Hortik aurrera, gure bideak pixka bat aldendu ziren. Ni 19 urterekin ezkondu eta baserrian geratu nintzen; Bittori, aldiz, 23rekin Zarautzera joan zen bizitzera, hango alkate zenaren semearekin ezkondu ostean. Eta hantxe sortu zuen, urte batzuk beranduago, bere negozioa ere: *Adiskide* izeneko ile-apaindegia. Beti pentsatu izan dut gure adiskidetasunari gorazarre eta konplizitate-keinu bat egiteko modu bat izan zela. Erokeriak. Ala *egokeriak*, agian.

Kontuak kontu, hor noa, azken 20 urteetako larunbat guztietan bezala, trena hartu eta Zarautz aldera. Eta joan naizen aldi bakoitzean bezala, gaur ere ideia bera darabilkit buruan: «Ixabel, gaur bai, gaur gaia aterakoyon!» Inozentziatik, gatzetako oroitzapenek sortzen duten nostalgia ikutuarekin, baina barnean daramadan intentsitatea azaleratzen utzi gabe. Azken batean, gaia atera eta bere erreakzioa ikustean, argi izango dut berak ere promesa harekin ametsetan jarraitu ote duen. Bihotza azeleratuta darabilkit. Arnasa hartu eta atea ireki dut. Hor dago, uniformetzat darabilen blusa beltz estuak bere bular perfektua markatzen duela. Irri zabal bat marraztu zaio ikusi nauen momentutik.

—Eunon, Ixabel! Zemouz pasaen astia? Hi ikusteko desiatzen nitxionan. Jarriai hemen eta kontaian! Ze ingoñau, betikua?

Aurpegia gorritu zait bere ahots leuna entzutearekin batera. Ni ikusteko desiratzen? Jakingo balu nik zenbat aldiz ikusi dudana aste

honetan begiak itxita, behatzak hankartean nituela... Sumendi bat bezala lehertzeaz sumatu dut azpialdea. Izerdiz blaitu zait kopeta.

—Eunon! Ni re desiatzen nitxionan, bakin, larunbatetako kapritxua beti asteko onena izaten den! Gaur permanentia ingoñat aspaldiko partez, zubiko haiziak oaintxe neuzkan lau ilekiya eaman zixkian eta! —bota diot naturaltasuna adierazi nahian.

Ez nuen permanenterako asmorik, baina horrela denbora luzeagoz begira dezaket eta, bide batez, nire izerdia eta masailak tindatu dizkidan kolore gorria disimuluan pasatuko dira sekadoratzar horren barnean.

Eta berokia kendu ostean, beregana gerturatu naiz. Hor hasi da, ilea garbitzen didan bitartean, rapa-ropa astea nola joan zaion kontatzen: biloben ikastolako abenturak, bezero baten gaixotasun arraroa, argiaren garestitzea... Tonika berean jarraitu du janari sobra bainintzan albalez burua estaltzen zidan bitartean ere: honen ezkontza eta haren dibortzioa, Gozategiren 30. urteurrena, adinak harekin dakartzan ajeen erreposoa... Ez dut tarterik aurkitu gaia ateratzeko. Mundu paralelo batera naramala dirudien sekadorapean ezarri nau gero. «Orain hemen 30 minutu» esan eta beste bezero batengana hurbildu da. Aurrean dudana *Hola* aldizkaria hartu dut, nire begirada ispiluan barrena etengabe beregan fokalizatua dagoela ohartu ez dadin. Eta hortxe dut aurrean nire paradisu propioa: bere besoen mugimendua Manoliren kanak orrazten dituen bitartean, bere irria, bere ahots leuna benetan interesatzen ez zaion emakumearen bizitzako joan-etorriak entzuten dituen bitartean. Bere enpatia kolosala, bezeroarekiko tratua, bere bularrak blusapean mugitzen, ipurmasail perfektuak, bere izerdi usaina... Eta, ohartu gabe, eskua Lecquio kondearen aurpegitik nire gonapera luzatu dut, sentitu dudana inpulso kontrolaezinaren bultzadaz. Ispiluari erreparatu eta niri begira harrapatu dut Bittori. Irri txiki bat egin dit, gaiztakeriatan harrapatu izan banindu bezala. Berriz lotsatu naiz eta oraingoan bai, orria pasa eta Bustamanteren abentura eta kalenturetan zen-

tratzea erabaki dut, denen osasun mentalaren hobe beharrez.

Pasatu dira 30 minutu, kendu dit buru gainean neraman albal dena. Ilea lehortu eta orraztea baino ez da falta. Lehen baino gertukoago antzematen dut; ispilutik ikusia gustatu ote zaio? Elkarrizketa hutsaletan murgildu gara beste behin ere: bertso-txapelketa, arraun-denboraldi berria, gasolinaren prezioa...

—To! Madona re beste espaloikua omen den! Akabaramos... Ze izangoñau hurrengua? Maria del Monte re ala dala? Maialen Lujanbio akaso? Mundua pikuta zien... —Manoliren indignazio ahotsa belarrietan barna.

—Garai berrik dittun Manoli! Baen garaya modernizatzeko! Goxatzia din bakoitzak nahi dinan horrekin, iñoi etzione ta kalteik iten! —Bittoriren erantzuna, ispilutik begirada nigan iltzatua duen bitartean.

Disimuluan rulo bat lurrera bota, eta bidean hauxe xuxurlatu dit belarrira, ispilutik begira jarraitzen duen bitartean:

—Guk'e altura hauetan etzionau iñoi kalteik ingo, ezta? Nahi al den biyar kafe bat hartu?

—54 urte nitxien kafe horren zai —erantzun diot urduri, gorputzeko ile denak tentetzen antzematen ditudalarik.

Aulkitik salto batean altxatu, ordaindu eta burua xut baina barnea lehertzeaz atera naiz ile-apaindegitik. Hor noa trenera bidean nire buruari «Hasta la Bittoria, siempre» behin eta berriz errepikatuz. Ze ona naizen batzuetan hitz jokoak egiten! Eta berriz ere irri egin dut, pubertaroan sentitze honek ematen didan botereaz kontzientzia hartuta.

Etxeko atea ireki orduko iritsi zait galdera belarri zulora:

—Zer dakau, ba, gaur bazkaltzeko?

—Lentejak!

—Berriz? —galdegin duzu. Eta barre-algara sakon bat atera zait kolpean, nire hankarteko lentejaren goritasunean pentsatuz.

—Bai! Eta bero-beroak, gainera!



# Zaurietan zubiak

Ainhoa Mujika Mendia

Dagoeneko erabiltzaileak sar daitezkeela jakinarazi dute hondartzako bozgorailuetatik; euskaraz lehenik, gaztelaniaz, ingelesez, frantsesez eta katalanez gero. Goizeko hamaikak dira ekaineko azken igandean. Hodeiak saretu ahala, hasi dira euskal kostara hurbiltzen oriotarrak. Gipuzkoar zein nafarrak eta zubipeko autokarabanetan ostatu hartuko duten atzerritarrak beranduago etorriko dira, opor usainean, abuztura—edo, kasurik onenean, uztailea— ozta-ozta iri-tsita.

Hegoak astinduz Abaromenditik itsasorantz doan kaioak nola, hondarraren eta itsasoaren arteko mugari beha igaro beharko ditu gaur gauera arteko orduak. Atzoko heriotza lazgarriak, ordea, arretari eustea eragozten dio sorosleari. Uretatik atera eta hondarretan etzan zuenean berretsi zuten zoritxarra. 6 urte baino ez zituen bandera gorriek arriskua ohartarazi arren olatuen amarruan bakar-bakarrik utzi zuten ume txikiak. Hasieratik egin zion txistu, eta egin zion txistu berriro, eta jarraitu zuen orroka, eta agintzen zion besoarekin irteteko... Aletak jantzi eta uretara egin zuen salto. Beranduegi baina.

Bart gaueko 22:00ak arte Ertzaintzari azalpenak ematen aritu zen 25 urteko gaztea Antillako sorospen-dorrean dago atzera, barruan bizi-bizirik dabilzkion mamuei muzin egin nahian aurrera begira. Mamuetako batek irakasle izan nahi duela gogorarazi dio; sorosle sartzea izan zen, ordea, sos batzuk irabazteko aukerarik azkarrena. Atximur egiten dio zerbaitek urdailean, presioa nabari du biriketean. Lauso dakusa ortzimuga.

Iritsi da, azkenean, aldaketa. Beren artean ohikoa duten sorbalda-kolpe bat emanda gurutzatu da lankidearekin. Inoiz baino goxotasun handiagoz igurtzi dio bizkarra lagunak, kontsolatu nahian seguruenik. Urertzera doa, oinak hondarretan arrastan daramatzala, alderik alde hon-

dartza zaintzera. Eguzkipean egingo ditu gaur ere bederatzi orduak, bere bizitzak hondoa jo bitartean besteenari ur-azalean eusteko.

Zerbitzua amaitu dela jakinarazi dute bozgorailuetatik; euskaraz lehenik, gaztelaniaz, ingelesez, frantsesez eta katalanez gero. Banderak jaso, kamiseta gorria aldatu eta bizikletaren gainean egin du alde. Errioari jarraika, pedalkadaz pedalkada, ertzainaren galdera datorkio behin eta berriz, behin eta berriz, gogora: «¿Qué hicisteis para prevenirlo?» Ezin du isilarazi buruko burrunba-hotsa eta, galderen zurrunbiloan kateatuta, ez ote da bera bere burua itauntzen ari den polizia? Bosgarren uda du sorosle-lanetan, baina berak behar du orain laguntza. Itotzen ari da barne-ekaitzetan. Nola egiten da igeri norbere baitako itsasoa? Ipar-haizea dator, euria hasi du. Hotz egiten du erruak hozkaka jaten duen bihotzean. Oria ibaiaren emariari so egin ditu Anibarko Portura bitarteko metroak ur gainean gorpuak balira bezala flotatzen duten hosto eta adarrei begira. Eta urrutira identifikatu du iluntzero irribarrez agurtzen duen mutil senegaldarra. Brastakoan, ur-bazterreko olatu zakar bat lehertzen den moduan, etorri zaio akordura Ibrahimaren anaia Bidasoa ibaian hil zela, inoren sorospenik gabe, ezkutuka, ihesi, itota. Eta beste olatu-kolpe batek oroitarazi dio atzo bere besoetan hilik zetzan neskato ilehoriaren bisaia.

Galga estutu, hanka bat lurrean jarri eta, lepoa jiratuta, «Ibrahima!» hots egin dio. Sekula ez zituzten lau hitz baino gehiago trukatu. Errioari begira, banku batean jesarri eta solasean jardun dute azken eguzki-printzen pean aurrenekoz; elkar ezagutuko balute bezala ezagutu dute elkar. Elkar uler dezaketelako ulertu dute elkar. Ibaiertz batetik besterako zubiak zeharkatu eta sosegatu dituzte bata bestearen enbatak, migrantea baita norbere zaurietatik ihesi dabilena ere.

# Aste bat oporretan

Libe Larrarte

## I

Komuna garbitu arte itxoin nahi nuen, sartzeko. «Itxita, garbiketagatik» triangelu horia zegoen atearen aurrean, karroaren ondoan. Aldameneko banku batean eseri nintzen. Oso goiz iritsi nintzen aireportura. Eskuko azkazalak margotzeko aprobetxatu nuen aurretik, kafetegian. Ondoko mahaikoek gaizki begiratu zidaten. Usain fuertea zuen esmalteak.

Uste baino denbora gehiago hartzen ari zen garbiketako emakumea, baina kakalarria nuen eta oso berezia naiz etxetik kanpo kaka egiteko.

Hegazkinean irakurtzeko hartu nuen liburua ireki nuen orduan; ez nuen emakumea presionatuta sentitzerik nahi. Gero, beste esmalte kapa bat gehitu nuen eskuineko eskuko azkazal txikian, lehenago izorratu egin nuelako. Denak zeuden pixka bat izorratuta; ez nuen pazientziarik lehortzen uzteko. Oso bizi-itxaropen laburra zuten nire azkazalek.

Nire hegaldiaren atea iragarri baino bi minutu lehenago amaitu zuen komuna garbitzen emakumeak. Suertez, nahiko denbora zen hori nire egoeran. Komunean, bonba botatzeko sentsorea oso sentsiblea zen eta etengabe aktibatzen zen, soinu asko ateraz. Horrek lana erraztu zidan. Alferrik galtzen zen ur-kantitate guztiak kezkatu ninduen, baina segituan pasa zitzaidan.

Hegazkinera igotzeko ilaran «Bikotearekin moztu ondorengo sendatzea» audioa deskargatu nuen meditatzeko aplikazioan. Aspaldian dezente egiten nuen, nire senarra eta bion arteko haus-turaren aurrerapen bat bezala, sorpresaz ez har-rapatzeko, prestatuta egoteko.

Lurreratu eta iritsieren atean senarrari itxoiten jarri nintzen. Nahiko atzera joan nintzen, motxila lurrean laga eta poste baten kontra deskantsatu nuen. Aurreneko lerroan, justu barraren atzean, jende asko zegoen izen desberdinetako kartelekin.

Bikote heldu bat ikusi nuen, gizon bat eta emakume bat, negar batean itxura guztien arabera beren alaba eta biloba txikia izango zirenak besarkatzen. Eta, beranduago, alabaren senarra ere besarkatu zuten, beren suhia, ordura arte bigarren plano batean mantendu zena. Indiar jatorrikoa zirudien gizonak; beste guztiak zuriak ziren. Denak ari ziren negarrez, suhia kenduta. Ni ere negarrez ari nintzen, telebista ikusten ariko banintz bezala. Poltsikoan bibrazio bat nabaritu nuen orduan. Mugikorra atera eta senarraren mezua irakurri nuen: «pasaportearen kontroletik pasatzen oraintxe».

«OK», erantzun nion, eta gero, «atean nago zain», eta bi bihotz.

Gero, maitalearen elkarrizketa ireki nuen.

«Ondo pasa oporretan» idatzi nion, musuaren emojiarekin.

«Berdin, bueltan gaude», erantzun zidan. Ez harridura ikur, ez emojiarik. Oso maitale lehorra izan zitekeen nahi zuenean.

Whatsappean bere elkarrizketa isilarazi eta artxibatu egin nuen gero. Gauzak ondo egitea garrantzitsua da. Poltsikoan sartu nuen berriro mugikorra.

Senarra iristen ikusi nuen. Ahaztuta nituen bere ilea eta janzkera. Biak gorrotatzen nituen. Flekillo moduko bat zuen, oso luzea, atze-atzetik hasi eta begietaraino iristen zitzaiona. Beti ari zen eskuarekin apartatzen. Derrigor molestatu behar zion, baina gazteago egiten zuela konbentzitututa zegoen. Alboetan oso motza zuen ilea, makinarekin moztuta. Galtzak beheregi eramaten zituen, rapero batek bezala. Penagarri samarra zen argazkia, osotasunean.

## II

Senarraren familiarekin elkartu ginen hurrengo egunean, haren anaietako baten emazte berria ezagutzeko. Beren ezkontzarako joan ginen

hara familia osoa, baina, iritsi ginenerako, ezkon-  
duta zeuden. Ez nuen azalpen gehiago eskatu.

Bost anaia ziren denera, nire senarra kontatuta. Ezkondu berri zen anaia alkoholikoa zen eta azkena ikusi nuenetik hogeita hamar urte zahartu zela zirudien. Emaztea, asiar jatorriko neska gazte bat, anaia baino hamabi urte gazteagoa zen. Oso ederra zen, bere azal zuri eta ile luze beltzarekin. Segituan ikusi nuen nire senarrari ere asko gustatu zitzaiola. Etengabe harrapatzen nuen hari begira eta haren ondoan eseri nahian, konbertsazioa emanez, ingelesa praktikatu. Oso ingeles-maila baxua zuen nire senarrak.

Ez zitzaidan batere inporta senarrarena, baina kargua hartu nion, barregarri geratzen ari zelako denen aurrean.

«Naturalki pertsona jatorra naiz. Familian ongi etorria sentitu dadin bakarrik nahi dut!» erantzun zidan lotsagabeak.

Uhartearen kostako kanpin batean hartu genuen ostatu familia osoak. Bi bungalow txiki alokatu genituen. Bi logela bakarrik zituzten eta irekitzen zen sofa bat, sukalde-egongela zonan. Bainugela bakarra zuten, oso txikia. Denera, hamahiru pertsona ginen, bederatzi heldu eta lau haur: senarraren gurasoak; anaia zaharrena (dibortziatua, bi haurrekin: bederatzi urteko semea eta hamaika urteko alaba); bigarren anaia eta haren emaztea, haurdun zegoena; hirugarren anaia eta haren emaztea, beste bi semerekin, bat hamaika hilabetekoa eta bestea lau urtekoa; eta senarra eta biok.

Ezkondu berri zen anaiak ere bazuen alaba bat orain, haren emazte berriak aurreko senarrarekin izandakoa. Hamabost urte zituen. Haiek beren etxea zuten uhartean; ez ziren kanpinean geratu.

Senarrak eta nik ez genuen haurrik. Familiakoek hasieran etengabe galdetzen ziguten ea noizko izango genuen bat, baina aspaldi eman zuten amore. Oso gogaikarriak ziren.

Gure bungalowa haurrik gabeko bungalowa zen. Gurasoak sofa-oheta aukeratu zuten, telebista zegoen zona bakarra zelako. Haurdun zegoen bikoteak matrimoniozko ohea zuen gela aukeratu zuen, noski. Senarrari eta bioi haurren gela tokatu zitzaigun, bi ohe txikirekin. Nire partetik

ez zegoen inolako arazorik.

Beste bungalowa kaos hutsa zen: hamaika hilabeteko haurra lurretik arrastaka ibiltzen zen, oinazpi eta mutur beltzarekin, beti zikin; haren lau urteko anaia kasketaldi konstantean bizi zen; dibortziatuaren alaba zaharrena, nahiz eta hamaika urte besterik ez izan, nerabezaro betean zegoen eta egun osoa Tik-Tokean eta selfiak ateratzen pasatzen zuen, oso naturalak ez ziren posturak jarritz; arreba baino bi urte gazteagoa bakarrik zen mutikoak eguna igerilekuan pasatzen zuen, aurpegi osoa tapatzen zion esnorkeleko maskarekin. Azal eta hezur besterik ez zen eta hotzez dardarka egoten zen beti.

Gozoki, patata frijitu eta litxarrerria gehiegi jaten zuten haurrek, horrekin konturatuta nengo aspalditik, baina nor nintzen ni ezer esateko. Ez ziren nire haurrak, bost axola.

Nire senarrak flotagailu erraldoi bat erosi zien kanpineko supermerkatuan, flamenko arrosa erraldoi bat. Familia osoa flamenkoarekin igerilekuan jolasten zen bitartean, ni ahalik eta urrutien zegoen etzaulki batean etzaten nintzen, itzaletan. Bero handiegia egiten zuen eguzkitan egoteko. Besteei gustatu egiten zitzaien munduaren amaiera iragartzen zuen bero itogarrian kiskaltzea.

Lan pixka bat aurreratzen saiatzen nintzen etzaulkian, baina lo hartzen nuen. Kristoren sustoarekin esnatzen nintzen lo hartzen nuen aldiro, norbaitek telebista altuegi jarrita utzi balu bezala. Igerilekuko haurren marruak ziren. Zerbait izugarria ikusi balute bezala erreakzionatzen zuten denbora guztian, baina ez zen ezer gertatzen inoiz. Hori zen beren hitz egiteko modulazioa.

Behin ikara pasata, lo hartzen nuen berriro segituan, laster arnasestuka esnatzeko. Gurpilzoro bat zen.

Denok batera gosaldtu, bazkaldtu eta afaltzen genuen normalean. Nahiago nuen hori, senarrarekin bakarrik egon baino, ze senarrak eta biok ez genuen ezer elkarri esateko. Gainera, ezin nuen ezer eskatu pikatzeko bion artean; oso jatun txarra zen.

Familia osoa sartzeko, gutxienez lau mahai elkartu behar genituen tabernetan. Zerbitzariak begiak biratzen zituzten gu ikustean, «berriz ere

hauek» esanez bezala. Ez nien errurik botatzen.

Itzultzaile-lanak egiten nituen, uharteko hizkuntza ondo hitz egiten zuen bakarra nintzelako, eta zerbitzariekin bereziki jatorra izaten saiatzen nintzen, gure existentziagatik kontsentsatzeko. «Nueve cafés con leche, dos con hielo, cinco cruasanes y tres napolitanas de chocolate, por favor».

Hirugarren egunean, afaritan, nire amaginarreba eta anaietako bat haserretu egin ziren. Normalean, azkeneko egunetan gertatzen zen hori; aurreratu egin ziren. Anaiari oilasko gordina atera zioten eta amaginarreba bere onetik atera zen. Aulkitik altxatuta, zerbitzariari deitzen zion eskuarekin, arrakastarik gabe. Semeak esnob bat zela esan zion amari, zerbitzariak ez zuela errurik, lanpetuta zeudela, esertzeko.

«Besteak baino hobea zarela uste duzu, e?» bota zion orduan amak semeari. «Ni baino hobea zarela pentsatzen duzu? Zure ama baino hobea?». Behatzarekin bularrean kolpetxoak ematen zituen bitartean esan zuen azken hori.

Aspalditik zetorren haserre bat zen, noski; inor ez da horrela jartzen oilasko gordin baten-gatik. Haurren zaintza-ereduan belaunaldi aldaketak sortutako talkarekin eta zaintza horretan aitona-amonek beren gain hartzen zuten lan-kargarekin zuen zerikusia haserreak, besteak beste, baina ez du merezi horretan sartzeak.

Semea aulkitik altxa, ahozapia mahai gainera indarrez bota eta martxa egin zuen: «Ni banoa». Amak ere gauza bera egin zuen handik gutxira. Ni anaia alkoholikoarekin peperoni pizza bat partekatzen ari nintzen. Anaia alkoholikoa barrez hasi zen, oporretan ginela eta ea zertara zetorren drama guzti hori. Beste anaietako bat ere jaiki eta amaren bila zihoala esan zuen. Anaia alkoholikoa bukile batean sartu zen, «oporretan gaudeee, jodeee, disssfrutatzzzzera etaaoondo pasatzera etorri garaaaa...» errepikatzen zuen mahaiari ukabilkadak emanez. Hitzak korapilatzen zitzaizkion. Aitaginarreba ere azkenean zutitu eta emaztearen bila abiatu zen, umore txarrez: «Urtero igual». Nire parean eserita zegoen senarrari begiratu nion. Hanburgesa bat jaten ari zen; hura ere nahiko gordina egonagatik ere, berdin-berdin ari zen. Laster burusoil geratzen

hasiko zela nabaritu nuen. Buru-azal tarte gehiegi ikusten nion.

Lehenago, arratsaldean, kanpoan afaltzeko prestatzen ari ginela, komuneko ispiluan begiratu nion senarrari. Beti ematen zuen gel fijaszaile bat ematen ari zen ilean, pixka bat atzeraka geratzeko. Ez zidan begiratu ere egiten; oso kontzentratuta zegoen. Ni hortzak garbitzen ari nintzen. Gure azalak konparatu nituen. Senarra erreta zegoen, arrosa-gorri kolorea zuen. Ni, berriz, oso beltzaran jartzen ari nintzen, oso *hot* ikusten nuen nire burua. Ez zirudien honetaz oso konturatuta zegoenik nire senarra, ez nuen miresmenik ikusten haren begiradan. Guapaegia nintzen berarekin egoteko eta ondoegi janzten nintzen. Alferrik galtzen ari nintzen bere ondoan, argi zegoen. Maitalearekin geratu beharko nuen oporretatik bueltan, morenoa joan baino lehenago. Kontua da nahiko nazkatuta nengoela maitaleaz ere. Norbait erabat berria behar nuen, nire edertasuna benetan apreziatuko zuena eta kalean eskutik emanda paseatzen genuenean, jendeak buelta emango zuen eta «ze bikote ederra egiten duten!» esango zuten barrutik.

Alkandora gehienak txikiegi geratzen zitzaizkion senarrari. Bat aukeratu nion, zabalena.

«Hau polita da», gezurra esan nion.

«Titipuntak nabarmentzen zaizkit honekin» erantzun zidan, alkandora zabalduz.

«Eta ze inporta dio horrek?»

«Ez zait gustatzen titipuntak ikustea».

Batzuetan horrelakoak botatzen zizkidan senarrak.

Hanburgesa bukatu zuenean, senarrak ere amaren bilaketara batzea pentsatu zuen. Ez zuten inon aurkitzen, baina kanpina oso handia zen. Anaia alkoholikoa eta ni bakarrik geratu ginen mahaiari. Arrosa gorri eta zuriak saltzen zituen adineko gizon bat hurbildu zitzaigun orduan. Sorta ederra zuen. Pentsatuko zuen anaia alkoholikoa nire senarra zela, zeren niri arrosa bat erosteko jestua egin zion. Nire lankide batek esaten zuen ez zitzaiola oporretara herrialde pobregoetara joatea gustatzen, pobrezia purnoa bultzatzea zela hori, hainbeste eskale eta kale-sailtzaile. Berezi gizon ona ematen zuen arrosa-saltzaileak. Errukitu egin nintzen eta bi

arrosa hartu nizkion. Hiru behatz jarri zizkidan aurpegi aurrean: «¡Coge tres!». Bi nahikoa zirela esan nion. Gauza bat da errukitzea eta bestea zutaz aprobetxatzea.

Gauetan argia egiten zuten tiratxinas hegalariaiak ere saltzen zituzten kaleko saltzaileek. Haurrentzat pare bat erosteak pentsatu nuen, baina azkenean ez nuen egin.

Kontua ordaindu nuen eta bungalowera itzuli beharko genukeela esan nion anaia alkoholikoari, jatetxea ixten ari zirela. Bungalow kanpoan eseri ginen besteen zain, belarretan. Garagardo bat eskaini nion anaia alkoholikoari; berandu konaturatu nintzen igual ez zela ideiarik onena. Zerbeza bana ireki genuen. Anaia alkoholikoak berdin jarraitzen zuen, «Oporrrrretan gaudeeeee jodeeeee, ondo passssatzera eta laaaaaasai egotera etorri garaaaaa, ez duzzzzuuusste?»

Buruarekin arrazoiak ematen nion. Kanpineko zaindaria bat pasa zen gure aurretik eta isilik egoteko keinua egin zigun, behatza ezpainetara eramanda. Barkamena eskatu genion eta anaia alkoholikoak marmarka jarraitu zuen, beti gauza bera esaten. Mugikorra atera eta senarrari idatzi nion: «Ama aurkitu?»

«Bai, bueltatzeko konbentzitzen ari gara. Orain aitarekin haserretu da. Inoiz ez diola defenditzen...»

Mobila berriz poltsikora sartzeko denbora izan baino lehen, txistu-hots arraro bat entzun genuen aurrean, eta gero ura alde guztietatik ateratzen hasi zen gure inguruan. Elkarri begiratu genion, begiak zabal-zabalik; kamera geldoan bezala zihoan dena. Segundo batzuk behar izan genituen gertatzen ari zena ulertzeko; mozkortuta geunden (bera beti zegoen mozkortuta). Lorategiko ureztatzeko sistema aktibatu zen. Korrika, sarrerako aterpean babestu nintzen azkenean. Kanpora begiratzeko buelta eman nuenean, anaia alkoholikoa belarretan makurtuta ikusi nuen, blai, zigarro erdia ahoan, punta erortzear, esku batekin garagardo latari eusten eta bestearekin ureztatzeko aspertsoreekin borrokan, alde batera okertu nahian. Arropak zabaltzeko soketan zeuden hondartzako toalla, bikini eta bainujantzi guztiak ere blai zeuden, baina ez nuen ezer egin. Anaiari begira jarraitu nuen. Zigarro-muturra

lurrera erortzarekin batera, puzker batek ihes egin zion. Begirada altxatu zuen niregana. Ez zirudien lotsatuta, ez harrotuta. Berdin zitzaion. Nik ere begirada berdinarekin erantzun nion, «arrazoi duzu, berdin dio» esaten zuena. Gure buruak kanpotik ikusi nituen, objektibo angular handi batekin bezala. Emakume bat ikusi nuen, ni, tente eta oso duin, samurtasun sotil batekin, makurtuta zegoen haur handi bati begira. Eta, gero, emakumearen arima ikusi nuen, pixkanaka gorputza utzi eta zeruraka igotzen, lurrean egon nahi ez balu bezala, bere tokia beste nonbait balego bezala.

### III

Hurrengo egunean, aurreko gaueko eztabaida eta gero, ez genuen denok batera gosalduta, ez bazkalduta. Senarra eta biok hondartzara joan ginen, igerilekura beharrean. Izugarri garestia zen eguzkitako bat erosi genuen kanpineko supermerkatuan, saltzen zuten bakarra. Justu-justu sartzen ginen biok. Itzaletan lo hartzen ari nintzenean, amaginarrebarekin haserretu zen anaia eta haren haurrak etorri ziren eta segituan bereganatu zuten eguzkitakoa. Senarrak uretara joateko aprobetxatu zuen. Lau urteko mutikoak pixalarria zuela eta aitak tabernara lagunduko ziola esan zion.

«Uretan egin dezakezu pixa» esan nion haurrari.

Puzker bat usaindu balu bezalako aurpegia jarri zidan, zerbait nazkagarria esan banu bezala. Aitari eskua eman eta txiringitorantz bultzatu zuen. Aitak hamaika hilabeteko haurra pasa zidan orduan, munduko gauzarik naturalena balitz bezala: «Hartu, segituan gatoz». Aita eta anaia urruntzen ikusi zituenean, txikia negarrez marruka hasi zen. Laster etorriko zirela esan nion, baina ezin zidan ulertu, noski. Toallan jarri nuen, ze besoetatik alde egiten saiatzen ari zen, konbultsioka, eta erori egingo zitzaidala uste nuen. Indar handia zuen urtebete ere ez izateko. Biak toallan eseri ginen, itzaletan, baina toallatik ere ihes egiten saiatu zen eta hondarretara irtetea lortu zuen. Hondarra kixkaltzen zegoen eta besoetan hartu nuenerako, eskukada bat hondar ahora eramatea lortu zuen.

«Ez! Kaka! Hori kaka!» hitz egin nion bere hizkuntzan.

*Gusanitos* pakete bat aurkitu nuen bere aitaren poltsan. Beti zuten litxarreriarren bat umeentzat, esan dut lehen. Bat eman nion eta hondarretara botazuen. Ez zen isiltzen. Inguruko jendearentzat entretenimendu ona nintzen: «Ea zer egiten duzun orain» esanez bezala begiratzen zidaten, «ea nola konpontzen duzun hori». Erronka gisa hartu nuen. Besoetan hartu nuen berriro haurra eta toallatik altxatzen saiatu nintzen. Ia erori egin nintzen, haurra eta guzti. Hobe zen aurrena ni zutitzea eta gero haurra hartzea. Nola ez nintzen ama, ez nekizkien horrelako trukoak.

Txikia besoetan nuela, ur-izkinara gerturatu nintzen korrika, hondarrak erre egiten zuen eta. Behin uretan, umea isildu egin zen. Barrez eta dena hasi zen! Barrurago sartu nintzen orduan. Bere oin txikiak ura ukitzen zutenean, altxa egiten zituen barre-algaraka. «Ba! Ez da horren zaila hau!» —pentsatu nuen, nire buruaz harro— «Edozeinek egin dezake».

Bitartean, senarra urrunean ikusi nuen, besoak zabal, uretan gurutziltzatuta bezala, plantxan. Mantxa zuri erraldoi bat itsaso urdin turkesan. Halako batean burua altxatu eta ikusi egin gintuen. Eskuarekin agurtzen ari zitzaigun orain. Bai haurrak eta bai nik ez ikusiarena egin genion eta gure jokoarekin jarraitu genuen.

#### IV

Nire errutina txikiak nituen. Goizetan igerilekua irekitzeko zain egoten nintzen, beste turista aleman batzuekin batera, itzaletan zeuden etzaulkietako bat hartzeko. Gero, hamarretako aquazumba klasea ikusten nuen. Gehienak adin ertaineko emakumeak ziren. Gizon bat ere joaten zen: emakume haietako baten senarra, uste dut. Irakaslea transa zen, itxura guztien arabera. Tripatxoa zuen, baina sasoi betean zegoen; hanka eta ipurdi firmeak zituen. Oso ondo egiten zuen dantza. Latinoa zirudien, odolean zeraman. Ile afroa zuen eta hortzetako aparatua ere bai. Atzeko hagineta jartzen den gomatxoa ikusten nion etzaulkitik, hori fluoreszentea.

Emakumeek ez zuten oso ondo dantza egiten, baina ur azpian zaila izan behar zuen. Nor nintzen

ni inor epaitzeko.

Arratsaldetan, mundu guztia igerilekuan zegoenean, bungalowean *Gold Divers* programa ikusten nuen telebistan. Programako mutilek beti uste zuten urre pila bat aurkituko zutela ur azpian eta aberastu egingo zirela. Beren itsasontzi txikietan kalkuluak egiten zituzten, astean ez dakit zenbat urre bilatuz gero, hilabetean ez dakit zenbat mila dolar irabaziko zituztela, 8.000 edo. Baina ikusleok bagenekien hori ez zela inoiz gertatuko. Horren orde, ur azpian tinpanoak lehertzen zitzaizkien eta belarririk odoletan hasten ziren, edo urrea xurgatzeko hodia askatzen zen eta konpontzeko berriz ur azalera atera behar izaten zuten eta gero berriro jaitsi, denbora asko galduz.

Gero familia bungalowera etortzen zen eta dutxatzeko txandak egiten genituen.

#### V

Hurrengo goizean, aquazumba klasea ikusi eta gero, etzaulkian lo hartzen ari nintzela, haurren marruek esnatu ninduten berriz, baina oraingoan, igerilekura begiratu nuenean, benetan zerbait gertatu zela sumatu nuen. Mundu guztia uretatik ateratzen ari zen zalapartaka. Sorosleak txilibituarekin jendeari presa sartzen ari ziren: «Kanpora, denak kanpora, azkar!». Ateratzen zirenak igerileku ertzean geratzen ziren, txutxumutxuka. Batzuk barrez ari ziren, besteek gonbitoak botatzeko itxura egiten zuten eta eskuarekin ahoa tapatzen zuten. Ez zen inor itoko, pensatu nuen, bestela ez zuten jestu hori egingo.

Senarra alboan eserita nuela konturatu nintzen.

«Noiztik zaude hor? Zer gertatu da?» galdetu nion.

«Uste dut norbaitek kaka egin duela igerilekuan».

Gero bere anaietako bat hurbildu zitzaigun eta gauza bera galdetu zuen.

«Zer gertatzen da?».

«Norbaitek kaka egin du igerilekuan» azaldu nion.

Muturra okertu zuen, hortik usaindu ahalko balu bezala. Jende guztia uretatik kanpo zegoen orain. Mantenukoa zirudien beste langile bat



iritsi zen salabardo bat eskuan, jendetzaren artean bide eginez: «Utzi pasatzen! Kendu erditik, mesedez!»

«Ikustera etorri nahi?» galdetu nien senarrari eta koinatuari.

Ezetz egin zuten biek batera buruarekin. Gaitzespen pixka bat nabaritu nuen beren aurpegiatan.

Publikoarengana batu nintzen eta alboan nuen emakume bati galdetu nion: «Non dago kaka?», ze ez nuen ezer ikusten uretan.

«Ez dakit, desegin egingo zen» azaldu zidan. «Begira, hor pusketa batzuk!» eta behatzarekin seinalatzen zidan tokira begiratu nuen. Ura sartzen zen zirrikitan trabatuta pusketa oso txiki batzuk ikusi nituen eta eskaileretan beste batzuk, oso gutxi.

Igerilekua itxi egingo zutela esan zuten orduan sorosleek. «Zenbat denbora?» galdetu zuen batek. «Ez dakigu, dena garbitu arte; gutxienez, ordu bete». Kexu kolektibo bat entzun zen orduan. «Ze nazka! Ez naiz gehiago sartuko» esan zuen neska gazte batek nire ondoan, eta bere lagunak, «Eskerrak bihar banoan!».

Niri berdin zitzaidan; ez nintzen inoiz igerilekura sartzen. Pixez beteta egon behar zuen horrek, bestela ere, derrigor. Edozer gauza harrapatzeko ere.

## VI

Hurrengo egunean, kanpineko kafetegian kafea eta txokolatzeko napolitana bana jaten ari ginela, ea aquaparkera joan nahi nuen galdetu zidan senarrak.

«Dibertigarria izango da hurrekin!» saiatu zen konbentzitzen. Haurrak, gainetik! Haurrik gabe ere ez nintzateke joango.

«Bero-olatu baten erdian gaude» —hasi nintzen—. «Ez dagomendagarria, ez oso inteligen-tea ere eguzki azpian ilara egiten egotea egun osoa txirrista batzuetatik behera botatzeko». Nire senarra lerdoa izan zitekeen askotan, baina ez zen aldaketa klimatikoaren negazionista bat, behintzat. Ezingo zidan konbentzitu.

«Maitea, oroitzapenak sortu behar ditugu» —bota zidan—. «Etzaulkian etzanda egun osoan ez zara oporretako oroitzapenik sortzen ari».

«Oroitzapenak sortu...» mediatu nuen isilean.

Makina batean txurroak bezala.

Batzuetan horrelakoak botatzen zizkidan senarrak.

## VII

Oporretako azken egunean besteak baino lehenago esnatu nintzen. Senarra ohean lotan laga nuen eta herrira jaitsi nintzen tren txutxuan. Eramateko kafe bat eskatu nuen taberna batean. Kaleak hogeitertetik beherako turista gazteez beteta zeuden, erdi biluzik paseatzen ziren neska-mutil gazteak. Senarrak lehenengo egunean bere anaiei komentatu zien ahapeka, nik ez entzuteko edo: «Maite dut uharte hau! Neskak hain daude beteak!». Noski, beteaz, ez zuen esan nahi, adibidez, bizitzaz beteak, edo itxaropenez beteak, edo poztasunez beteak, nik zer dakit. Beteaz, haragiz beteak esan nahi zuen. Titi eta ipurdi handiz beteak, alegia. Horrelako nazkagarria zen nire senarra, baina ez zitzaion arrazoirik falta. Goiz horretan, oso zaharra sentitu nintzen gorputz gazte eta eder horiez inguratuta, nahiz eta ni ez nintzen inoiz horrelako betea egon. Beharbada horregatik, trentzadun emakume afrikar batek bere dendara gonbidatu ninduean —«Hola, guapa, ¿trenzas?»—, ez nuen dudarik egin eta barrura sartu nintzen. Buru osoa trentzaz betetzen zidan bitartean, denda berean lan egiten zuen beste emakume bat gerturatu zitzaidan, kolonbiarra, eta nire eskuetara seinalatuta, «¿Manicura?» galdetu zidan. Zergatik ez! Aireportuan margotu nituen azkazalak nituen oraindik, ia guztiz borratuta. Puntu itsusitu batzuk besterik ez ziren geratzen behatz bakoitzean. Azkazalak egin zizkidan emakumeak kontatu zidan hogeita bost urte baino gehiago zeramala uhartean bizitzen. Senarrarekin eta semearekin etorri zen. Orain semeak bere familia propioa zuen.

«Ez dit inoiz deitzen» kexatu zen. «Baduzu haurrik?» galdetu zidan.

«Ez» erantzun nion.

«Hobeto. Hainbeste esfortzu eta gero kasurik ez dizute egiten».

«Ya...». Ezin nion esan nik nire amari ere ez niola inoiz deitzen. Gorrotatu egingo zidan, justu lagunak egiten hasi ginenean.

Fluoreszente koloretsuetako azkazal luze des-

berdinak erakutsi zizkidan orduan, karpeta bateko orriak pasaz. Parean nuen bat aukeratu nuen behatzaz, edozein. «Aukera ona!» animatu zidan. Ez zitzaidan inporta, berari entzun bakarrik egin nahi nuen.

Bere biloba asko maite zuela ere esan zidan, poz handia ematen ziola, nahiz eta nahiko lukeena baino gutxiago ikusi.

Bere senarrari buruz hitz egin zidan gero. Nola biek herrian egiten zuten lan, baina ondoko herrian bizi ziren, txikiagoa zena eta turista gutxiagorekin. Argazkilaria zen senarra eta argazki-denda bat zuen. Negozioa ez zihoan oso ondo, ordea: «Analogikoa hilda dago» esan zidan, azken orduko berri bat ematen ariko balitzait bezala, duela gutxiko fenomeno bat balitz bezala. Harritu aurpegia jarri nuen, hala ere.

Arratsaldero senarra bere bila pasatzen zen, lanetik jasotzen zuen eta supermerkatuara joaten ziren pikatzeko zerbait erostera. Hondartzara jaisten ziren gero, pareo handia hondarretan jarri eta ilunabarra ikusiz humusa eta ogi-zotzak jan, coca-cola bana edan eta bainatzera. Hainbeste urteren ondoren oraindik ere oso maiteminduta zeudela aitortu zidan. Pixka bat gorrotatu nuen orduan.

Ordaindu eta alde egin nuen dendatik. Nahikoa izan nuen. Tatuajeren bat egiteko ere konbentzitu nahi izan ninduten (hiru gauzak egiten zituzten komertzio berean, zerbait normala zen inguru hartan), baina gehitxo iruditu zitzaidan.

Tren txu-txurantz oinez hasi nintzen senarrak eta bere familiak ni ikustean jarriko zuten aurpegia imajinatuz, kartel bat ikusi nuenean kale izkinan. TAROT eta MAITASUNA irakurtzen ziren, beste hitz batzuen artean. Posterreko geziari jarraitu nion bi aldiz pentsatu gabe, egunero hortik pasako banintz bezala. Kale nagusiko zalapartatik urrun, kalezulo perpendikular batean sartu nintzen. Pixa usaina zegoen eta lurra gazteek kontsumitzen zuten barre egiteko globo eta kartutxo bezala zegoen. Erraz aurkitu nuen portala, eta atearen bestaldean, aspalditik niri itxoiten bezala, emakume heldu potolo bat ikusi nuen irribarrez. Ile-apaindegietan burua garbitzeko erabiltzen diren besaulki batean zegoen eserita, mahai baten atzean. Ijito itxura zuen.

Ezer esan baino lehen, nire ezkontza eraztunari

begiratu zion eta mahaiaren bestaldeko aulkian esertzera gonbidatu ninduen eskuarekin. Betazalak brillantina urdinez margotuak zituen; oso ondo makillatuta zegoela fijatu nintzen. Berak bakarrik egin ote zuen galdetu nion neure buruari.

«Zure senarra den jakin nahi duzu?» galdetu zidan segituan.

Azkarra zen, baina ez hainbeste. Nik ere banekien nire senarra ez zela nire bizitzako maitasuna.

«Ez da bietako inor» jarraitu zuen: «Ez senarra, ez maitalea».

Esperantza txiki bat nuen maitalearengan, baina tira, berak esaten bazuen...

«Ez didazu kartarik bota behar?» galdetu nion, pixka bat minduta.

«Tarotean sinesten duzu?» bota zidan. Harrapatu egin nau, pentsatu nuen, usaindu egingo zuen, txakurrek beldurra usaintzen duten bezala.

«Ez» erantzun nion. Igual de balde aterako zitzaidala pasa zitzaidan burutik.

«Hori uste nuen». Bere hipotesia baieztatu berri nion. Segidan, arraroa eta hunkigarria iruditu zitzaidan keinu bat izan zuen: eskua luzatu zidan mahai gainean, esku-azpia gora begira, nire eskuaren zain. Kokotsa dardarka hasi zitzaidan. O, o! Bola bat igotzen nabaritu nuen bularretik eztarriraino eta malkoak pilatzen hasi zitzaizkidan begi atzean. Ezin izan nion denbora askoz eutsi, oso erraz egiten dut negar. Eskua eman nion orduan, dardarka, eta horrela geratu ginen eskutik emanda momentu batez. Harrituta geratu nintzen nire azkazal berri, luze, fuksia fluoreszenteak ikusita.

«Hogei euro dira».

Gaizki interpretatu nuen jestua, baina polita izan zen momentu batean gure artean gertatutakoa; hori ezingo zidan inork kendu. Karteran nuen azken billetea eman nion eta, zutitzeko indarra berreskuratu nuenean, sorginaren besaulkiaren atzeko ispiluan nire *look* berriari erreparatu nion lehenengo aldiz dendatik atera nintzenetik. Susto pixka bat hartu nuen hasieran. Begi negartsu eta gorrituekin, oraindik eta ero itxura handiagoa nuen, baina ederki ematen zidaten trentzek, egia esan.

# Kolore ukitua

Aritz Pardina

Beste behin ere, iluntzean, aita-sembleek horma grisari begiratu zioten isilean, ulergaitza zitzaizen eskultura baten aurrean baleude bezala.

Asteak pasatu ziren pilotalekuko lanak hasi zirenetik eta, artean, kirol-eremua ez zen hormigoizko pareta gris eta laua baino.

Adio, noski, zelaiari, etxetik ateratzean zapaltzen zuten tapiz bigun eta atseginari; udaran, oinetako irekien zirrikituetatik kilimak egiten zizkien zoru bizigarriari.

Eta adio koloreari: zelai eta mendien berde paleta amaiezinari, lore bizien diosal alaiei, abereen hausnar geldoari.

—Akabo bakea!—laburtzen zuen egoera aitak, huts egiterik gabe, etxera abiatu aurretik.

Semeak, oster, Xabier Leteren olerkia izaten zuen buruan: «Zelai ertzeko lore gorriak/negua zapuztu ditu...».

\*\*\*

—Honek ez dakar onik —kexu azaldu zen ama, beste askotan bezala, sukaldeko leihotik begiratu eta, lehen zuhaitzak, belardiak eta animaliak ikus zitezkeen lekuan, amaitu gabeko eraikina ikusi zuenean.

—Akaso jendea erakarriko du, ama —esan zion semeak ziurgabetasunez, hark ere lanei errezeloa baitzien.

—Jendea, jendea! —ihardetsi zion aitak, ahoa bete bakailao—. Zalaparta bai, ederra!

Horzegoen, bada, kokka: batzuek pilotalekuari onura ikusten zioten, zeren eta auzoa jendehusten ari zen pixkanaka. Hala, beren jaiolekua biziberritzeko aukera oro ontzat ematen zuten, bestelako ondorioak behar bezala haztatu gabe; besteek, berriz, beren etxea bere horretan agurtu nahi zuten, ezagutu bezala, gorabehera handirik gabe.

Edonola ere —dirua zer den—, udalak lur-sailengatik egindako lehen eskaintza agudo

onartu zuten baserritarrek. Onerako edo txarrerako, abian ziren lanak.

\*\*\*

Semeak idazteari ekin zion azkenaldi samarrean. Zientzietako mutila izan zen betidanik, oso ikasle ona gainera, baina bazituen zenbaki hotzen gaindiko jakin-nahi eta buruhaustek, hala nola: ongia, gaizkia, sentimenduak, natura eta munduaz harago egon litekeena.

Bakarrrik bizi zen gurasoekin, arreba hilabeteak atzera joan baitzitzaizen mutil lagunarekin kalean bizitzera. Maria —hala zuen izena— fisikaria zen, laborategi garrantzitsu bateko langilea.

Mikel ere, arrebaren pausoei jarraiki, matematikako ikasketak egiten hasi zen, baina agudo konturatu zen zientziaren bideak ez zuela zoriontsu egingen. Baina, nola esan gurasoei...

Ez, gauza bere horretan utziko zuen, inor nahigabetu gabe; nahikoa zuten pilotalekuaren kontuarekin.

\*\*\*

—Aurten Gabonetako apaingarriak jarriko ditugu? —galdetu zuen Mikelek afari garaian.

—Bakarrrik ez dira jarriko, behintzat —erantzun zion amak, aitari begira.

Ez zuen hark ezer ere erantzun. Bi xerra zati ziztatu zituen sardexkarekin, eta batera sartu ahoan. Ama-sembleek jaso zuten erantzun bakarra aitak murtzikatzerakoan ateratzen zuen soinua izan zen. Ondoren, bide bazterrak garbitzeko zeudela aipatu zuen. Hortik aurrera baserriko kontuez aritu ziren, harik eta postrea amaitu zuten arte.

—Orduan, zer egingo dugu? —heldu zion berriz ere semeak apaingarrien gaiari—. Gainean dugu abendua, eta hasi beharko dugu begiratzen zer dugun eta zer ez dugun...

—Ez dugu txorakerietan ibili behar —moztu zion aitak—. Etxe honetan ez dago adornu horiei begira egongo den umerik. Ez gara alferrik lanean jardungo.

— Gainera —gehitu zuen amak—, zergatik jardungo gara gu argiak eta apaingarriak jartzen, udalak kanpoaldean argi ziztrin bat bera ere jartzen ez badu?

\*\*\*

Afaldu ondoren, Mikel idazmahaian eseri zen, koaderno eskuan. Horrelako egoeren ondoren, nahikoa izaten zitzaion lerro batzuk idaztea, hobeto sentitzeko; hori zen haren atsekabeen sendagaia.

Ezer baino lehen, eskailerak igo eta gelan sartu zen. Han, leihoa zirrikitan zabaldu ostean, kanelazko intsentsu-makilaria su eman zion. Jarraian komunera joan zen, bueltakoan kearen lurrinak lasai ziezaion.

Logelako sabaia makurra zen, egurrezko habeek eusten ziotena. Gelako zati baxuenean diskoz eta liburuz betetako egur ilunezko bi apal zeuden, eta idazmahai ederra apalen azpian, eta lau tiraderako altzaria idazmahaiaren azpian. Gune hori begiratzen zuen aldiro, iruditzen zitzaion mundu osoa gordetzen zutela bertako gauzek.

Horrez gain, ohe ondoko mesanotxeetan, alde batean, zenbait aldizkari eta egunkari zituen pilatuta; beste aldean, aldiz, Euskal Herriko basoei eta ibaiei buruzko eskuliburu batzuk zituen.

Intsentsuaren usainak lagunduta, idazten jardun zen gau hartan ere. Isilpean zituen CDek eta itxita zituen liburuek ere asko inspiratzen zuten, zeren, haien eragina sentitzeko, nahikoa zitzaion pentsatzea soinu, hitz eta pertsonaia horiek guztiak gotortuta zeudela, norbaitek atea jotzeko zain.

Eskuinera begiratu zuen, leiho karraturantz. Kanpoan zelaiaren hasiera soilik ikus zezakeen, gainerakoa gauak ezkutatu baitzuen: zelaiaren hasiera, eta baita artean fruiturik eman ez zuen gereziondo zurixka ere, amaren lorategiaren erdi-erdian zegoena.

\*\*\*

Gau horretan, bi sarrera idatzi zituen koadernoan:

*Zientzia humanitatez busti, nire idatzien bitartez,*  
eta

*Frontoiaren hotzak, hormigoiares grisak, ondo baino hobeto islatzen du gure etxeko aldarteak, kolorerik eta bizipozik gabeko gure egunerokotasun itzalia. Ezagutuko ahal dugu garaia, zeinean kolore ukitu txiekiez, guztion artean, bizitzari baikorrako helduko diogun...*

\*\*\*

Hurrengo egunean, eguerdian, asteazkeneroko lege, ondoko baserrira joan zen, hango bi lehen-gusuri (neska-mutilak) matematikako eskolak ematera. Izan ere, lan asko ematen zien ikasgai horrek gizagaixoei.

Mikelek erosoago lan egin zezan, bi umeen gurasoek arbela erosi zuten, errotuladoreekin idazten den horietakoa.

Egun hartan, klasea hasteko, buruketa batzuk agindu zizkien Mikelek umeei. Hamar minutu ingurura, neskak amaitu zituen, eta galdetu zion ea arbelean marrazkia egin zezakeen. Baietz erantzun zion irakasleak, ariketak zuzendu bitartean bazuela denbora.

Neskak, marrazkilaria bikaina bazen ere, ez zuen idazkera batera zaintzen. Ariketa gehienak gaizki egin zituen, baina hori ez zen larriena. Izan ere, Mikelek enegarren aldiz errepikatu zion txukunago idatzi behar zuela, idazkera zabar horren ondorioz, nahikoa lan izaten baitzuen akatsa non zegoen jakiteko.

Arrazoi horiek ematen ari zela, arbelera begiratu zuen. Han, tinta beltzez marraztutako zuhaitza zegoen, bi sagar gorri adarretan zintzilik zituena. Mikel marrazkiari so gelditu zela ikusita, neskak azalpen hau eman zion:

—Belarritakoak ditu.

\*\*\*

Afalondoren, Mikel idazmahaian eseri zen. Egunkarietan markatuta zituen zenbait artikuluri

heldu nahi zien, baina ezin zuen bere baitan bildu.

Irakurketa erdizka utzi zuen. Halakoetan, leihotik begiratzen zuen, kontzentrazioa kanpoan bilatuko balu bezala. Gereziondoari begira zegoela, burutazioa izan zuen.

Kanela usaina atzean utzi eta ganbarako bideari ekin zion. Teilatuaren erdialdean zegoen trastelekua, eraikinaren zati garaienean. Egurrezko eskaileratan gora iritsi zen bertara.

Han, kartoizko kaxetan entresaka jardun zen, harik eta «Gabonak» zioen kutxa aurkitu zuen

arte. Eskuarekin gaineko hauts-geruza kendu zion. Jarraian, lurrean aurkitu zituen herdoildutako artaziekin moztu zuen lehengo urtean kaxa ixteko erabili zuten zinta.

Ahalik eta zarata gutxien eginda, atzera beheranzko bidea egin zuen, zuzenean amaren lorategira.

Gauaren ezkutuan, Mikelek ganbaratik hartu berriak zituen Gabonetako bi bola gorri zintzilikatu zituen gereziondoaren adarretan.

—Ondo ematen dizute —xuxurlatu zion zuhaitzari.

# Aldarrikapena

Iona Rekarte

Esan didazunean kontuz zer egiten duzun bestela, agian, kontra etorriko zaizu, zer esan nahi izan duzu? Niri min emateko ahalmena duzula? Nire alabari? Nire familiari? Nolako mina? Duzun nolabaiteko botere publiko hori nola erabiliko duzu, baldin eta nire desadostasuna mahai gainean jartzen badut?

Aipatutako hitz horien aurrean bizitzak, beste behin, nire tokian jarri ninduen, emakume txiki eta beldurtuaren tokian. Sentitzen nuen guztiz ondo programatuta nengoela gertatutako egoera horretarako. Nire aldarrikapena alde batera utziko nuen beste behin. Burura zetozkidan hitzek nire ezpain-barruak kolpatzen zituzten neuronetatik barrena, baina guztiz kapaz izan nintzen matrailezurretako giharrak estutu, haginak haginena kontra, eta ezpainak irmo itxita mantentzeko. Amorruek eraginda, objekturen bat hartu eta lurrera fuerte botatzeko gogo bizia izan nuen, eta kapaz izan nintzen, horren orde, ukabilak estutu eta azazkalak esku-ahurrean sartzeko, mina sentitu arte. Zerbait ostikoa emateko gogo ere aise kontrolatu nuen. Uste dut begiak itxi, bekokia estutu, arnas hartzeari utzi eta kaka egiteko sabelarekin egiten den

indar hori besterik ez nuela egin behar izan segundo pare batez. Esfinterra bakean utzita, noski.

Momentuko egokitzapen ikasi eta azkar horren ondoren, era oso baldarrearaguru nuen mehatxu egin zidan pertsona hura eta telefonoa eskegi nuen. Arratsaldean, hainbat aldiz etorri zitzaidan burura eguerdian bizitako egoera. Hasierako orduetan, minutuero. Lasai egoteko esaten nion nire buruari, sentimendu horiek pasatuko zirela, gero eta urriagoak izango zirela kontrolatu beharreko amorruek ziztadak. Gainera, sukaldeko mahiko kaxoiaren atzealdean ezkutatuta, Lorazepan pare bat nituen behar izanez gero, gauean lasai lo egiteko.

Agian ezaguna zaizue naizen emakume-motaz itzera eraman nuen esperientzia-mota hau; beharbada, ez. Ondo portatzea zer den oso gazte nintzela irakatsi zidan, eta horrela, behin eta berriz, nire eta besteon aldarrikapenak alde batera uzten joan naiz. Baina baditut ia 50 urte, eta gaur ezberdin egin dut: ipuin autobiografiko hau idatzi dut. Eta badakizue zer? Ondorioen beldurrak nago orain.

# Ume salduak

Ainhoa Mujika Mendia

*Doinua: Gure lurrean hedatua da.*

1  
Ni Rabiya naiz, Bangladeshkoa,  
ta amorratuta nago.  
Gizon batekin ezkondu naute  
andretu baino lehenago.  
Aukeratzetik ez dago,  
nire geroa akabo!  
Josi ta josi 10 euroko  
zure modaren esklabo;  
zentimo baten itxaro  
eguna ohi dut igaro.  
Mundu honentzat ez naiz deus ere:  
trapu zikin bat gehiago. (Bi aldiz)

2  
Ni Carmina naiz, florentziarra,  
eta karminez azala  
margoturikan agertzen naute  
lore polit bat bezala.  
Instagrameko murala  
da gurasoen morala.  
Haur txiki baten biluztasuna  
ez al da ba naturala?  
Erakusleihu zabala  
dugu sare soziala.  
Norberak bere buruarekin  
nahi duna egin dezala! (Bi aldiz)

3  
Ta ni Mina naiz, minez nagoen  
neskato afganiarra.  
Mediku izan nahi nuen noizbait;  
nintzen ikasle azkarra.  
Baina galdu dut biharra,  
eta ekiak iparra.  
Talibanekin araua dugu  
etxean egon beharra.  
Gizartearen hondarra  
emea da, ez da arra.  
Ahoa itxi digute eta  
eman digute bizkarra. (Bi aldiz)

4  
Ni Hilda nauzu, Hannoverkoa,  
ta bizi egin nahi nuke.  
Leuzemia dut zainetan eta  
soilik ditut 7 urte.  
*Crowdfunding*-a egin dute;  
ze erantzun, ze entzute!  
Ospitalerik hoberenean  
eman didate arkupe.  
Pronostikoa itute,  
elkartasuna bertute;  
Ai, minbiziak etsiko balu  
itxaropenaren truke! (Bi aldiz)

5  
Ni Bakari naiz eta bakarrik  
heldu naiz Boli Kostara.  
Burkina Fason saldu ninduten  
animalien erara.  
Zuhaizpea dut izara  
eta lana bera paga.  
Ume beltzaran ugari gaude  
zurien esanetara,  
zure kakao kikara  
ez betetzea ikara.  
Gaurtik aurrera tarteka nitaz  
gororatuko al zara? (Bi aldiz)

6  
Ni Andy nauzu, Floridakoa,  
handi-mandia, sosduna...  
Jaiotzerako sortua neukan  
zetazko etorkizuna.  
Mundu mailan oihartzuna  
eta agenda zurruna;  
ama aktore ederra, aita  
abokatu ahalduna.  
Urre zurizko komuna  
ta lorategi txukuna,  
baina diruak ez du sekula  
erosiko maitasuna. (Bi aldiz)

7  
Ni Diana naiz, Ekuadorkoa,  
ta bihotz erdi-erdian  
gezia sartu zidan biziak  
bi mila ta hamabian.  
Ordutik Euskal Herrian,  
beren bizitza berrian  
aita ta ama gero hobe bat  
eraiki nahirik arian  
ari dira ezarian,  
dei bat aldian-aldian...  
Behin alaba bat izan zutela  
ahaztu zaie agian? (Bi aldiz)

8  
Ni Hassan nauzu baina bizitza  
sarri zait jasanezina,  
astun bihurtzen zaizkidalako  
Tindufeko hondar fina,  
eguzki erre gordina  
eta etsipen jakina.  
Bihotz-bihotzez eskertzen ditut  
Saharautzen ahalegina,  
Zarauzko uda urdina  
eta jende atsegina.  
Ai, sahararrak egunen baten  
aske izango bagina! (Bi aldiz)

9  
Ni Yoana naiz, Ukrainatik  
Oriora etorria.  
Batzuentzako biktima nauzu,  
besteentzako zorria.  
Ezinbestez igorria,  
ihesa eskuorria.  
Ondotxo dakit zer diren herra,  
gerra ta kale gorria;  
misilpeko oskorria,  
isilpeko laborria...  
Salbatzearren galdu nituen  
sendia ta jatorria. (Bi aldiz)



Ta ni Harri naiz, oriotarra,  
 hartzen nautena harrika.  
 Arratsaldero izaten ditut  
 bi ikaskide segika;  
 mehatxuka, garrasika,  
 portaleraino aldika.  
 Ta besteentzat ikusezina  
 naizela ni ikusita,  
 egoa nola elika?  
 hautsi banaute zatika?  
 Bakardadea da niretzako  
 topatu dudana botika. (Bi aldiz)

# Batek esanak

## Goiuri Unanue

Batek esan zidan behin,  
 Bizitza galdu dezakegula momentu egokiena itxarotean.  
 Eta aurreratzean erortzen banaiz?  
 Nork lagunduko nau zutitzen bere agenda okupatuan?

Batek esan zidan behin,  
 Maitasuna behar den momentuan, behar denarekin gertatzen dela.  
 Eta momenturik eta denik ez bada?  
 Nork izango du ni aurkitzeko gogo bere bihotz okupatuan?

Batek esan zidan behin,  
 Ez garela hiltzen besteen oroitzean gauden bitartean.  
 Eta hiltzen banaiz, nor gogoratuko da ba nitaz?  
 Nork gordeko du lekua niretzat bere memoria okupatuan?

Eta nik diot, berriz,  
 bizitza errazago litzatekeela alderantziz biziko baginateke.  
 Erori aurretik zutituz,  
 izango diren momentuetara aurreratuz,  
 ahaztuko ez nauten memoriak sortuz.

# Gure bizigaiak

Iñaki Iturain

Lurra, ura, airea eta sua,  
gure lau bizigaiak;  
laurak ditu berezko biziak,  
denak ezinbesteko, gizakiak.

Haserretu zen natura,  
airea haize bihurtuz,  
ura, euri-erauntsi,  
lurra, lurrikara,  
sute, suarenugarra.

Haizeak, fiu-fiu,  
itsasoa zuen gaiztotu,  
sua hauspotu  
eta basoak sutu.

Baina... euria ekarrita  
urak sua amatatu  
zelaiak ureztatu  
lur hazia ernaldu  
eta landaretza sortu,  
yin yang borobilean.

Kaltegarri da uholdea,  
(h)ura bezain, lehortea.  
txit larriak biak  
sarri hilgarriak.

Urakanak hondoratuko lukeen belaontzia,  
haizerik gabe ez lihoake inora,  
ez letorke inondik.

Su barik, hotza da natura, izotza,  
baina suteak erre egiten du, kiskali.  
Lur antzuak gosea dakar,  
Lurrikarak, izua, heriotza.

Gozagarri zait  
zirimiri freskoaren zirrara,  
brisa leunaren laztana,  
lur emankorraren uzta  
eta su goxoaren epela.

Asegarri,  
iturriko ura,  
itsas ondoko haizea,  
baratzeko lurra  
eta sukaldeko sua,  
amaren ahotik  
natura aditzeko  
eta arima sosegatzeko.

# Elbarri

Anemi Fernandez

1  
Hau *malaletxea!*  
Alperrik dun damutzea!  
Oporren gozotik,  
galanta derrapea!  
Igeltsuz bilduta  
behatz-izter artea,  
bi, hiru edo lau  
hilabeteko epean,  
landu beharko dun  
konformidatea.  
Ireki etxeko atea  
eta atera nazazue,  
arren, paseatzera!

2  
Patinetean sigi-sagaka,  
alai, bixkor itxuran.  
Frenatzen ez jakinda,  
gehiegizko abiaduran,  
krakatekoa entzun da,  
hezurren urradura.  
Tibia puskatu da,  
ez dago duda.  
Akabo niretzat uda!  
Ederra tortura,  
lo egiteko postura.  
Laguntza eskatu beharra  
bihurtu da ohitura.

3  
Gurpildun aulkian  
eserita elbarri,  
koskak eta aldapak  
gorputzean nabari.  
Nahiz eta ezezagunen  
interesa igarri,  
izanda ere inguruan  
laguntzaile ugari,  
sentitzen da bat  
oso zaugarri!  
Herriko dendari:  
Ahalko bazenu  
ranpatxo bat jarri?

4  
Laguna Manterola,  
ikaragarri eskuzabala,  
eskaini dizkidana  
askatasun-hegalak.  
Aulki elektrikoa  
ez da opari makala!  
Hankari luze jarrita  
dagokion apala,  
martxa sartu eta  
abiaduran berehala.  
Motordun balan  
askatasun totala,  
leundu da lurrazala!

5  
Paseoan lagun,  
famiako txakurra.  
Atera dugu ibai ondora  
berak ni eta nik hura.  
Bere kakaren arduraz  
ez dut egiten duda,  
moldatu banaiz ni  
beharko luke denon ohitura!  
Aldatzen da bizimodua  
jaisten denean baten altura.  
Probatuko bagenu denok  
halako abentura,  
hartuko luke herriak  
bestelako itxura.

6  
Makuluekin oinez hastea,  
esperientzia zoragarria!  
Muntotik Dikera,  
hanka esnatzen hasia.  
Gutxi falta zaidan, Goiko Kale,  
laster harantz nian!  
Baina batzuentzat  
hau ez da aldagarria:  
jarraituko dute aulkian  
gaur, etzi eta bihar.  
Egin dezagun, aizue,  
Orio irisgarria,  
oztopoek egiten baitute  
bat elbarria.

# Metaverso bertso-meta

Rosi Lazkano

*Doinua: Gure lurrean hedatua da.*

1  
Metaverso bertso-meta,  
piztu fokoen krisketa,  
berriz hemen degu-eta  
mikrofonoa gorabeheraka,  
imintzio, keinu, mueka...  
aiene eta txalo artean  
Bertsolari Txapelketa (bis).

2  
Uso giro, bertso giro,  
doinua ere propio,  
ziri eta desapio,  
txapelketako ekosisteman  
zer kanta bada, dedio!  
Parte garela onartu behar,  
aber, zer erremedio! (bis)

3  
Oholtza ganean sei silla,  
aurrean milaka pila,  
plazer eta muga bila,  
hiru ordutan etenik gabe  
tantaka ari da istila,  
batak bestea zapaldu gabe  
jarduna eta isila (bis)

4  
Gai-jartzaileak agindu,  
buru-errotak birrindu,  
eta mingaina astindu.  
Ateraldien dotoreziak  
masailak irriz apaindu,  
ahozabalik utzi bagaitu,  
lana galanki egin du (bis).

5  
Zatiak galduz pastela,  
abiatu eta bela,  
urtzen zenbaki-kandela,  
buru prestuak ugari baina  
bakarra ginda txapela.  
Berriro ere esan beharko  
jokoa errenta ez dela (bis).

6  
Bakardadea han zutik,  
gu lasai aztertzen geutik,  
nahiz eta ez jakin tutik,  
inspektoreen lupak hartuta  
disimuluari utik,  
ikusitzeko nola irristak  
ordaintzen diran larrutik (bis).

7  
Gero kiniela-festa,  
nahiz ez balio bi pesta,  
izen ta buru errezka.  
Batek «hau baietz finalerako!»  
besteak erantzun «ezta!».  
Mitikoena txapelduna zer  
ote mutil ala neska (bis).

8  
Urepel eta erauntzi  
Pello Joxepe mainontzi,  
zaharrak berriai goraintzi.  
Gaur bizi degun garai globalak  
esamoldeak erantsi,  
ni harrapatu ezinik hitza  
ta berak denok irentsi.

9  
Aurren-aurrena izatea  
ta oso goizo joatea  
ta berandu irtetea.  
Jubilatuok presa pixka bat,  
zer nahi dezu esatea?  
Mantxo ibili, ikusi, entzun,  
baina nahi dena jatea (bis).

10  
Bota dinbili-danbala,  
barruak eskatu ahala,  
baina heldu da finala.  
Bertsolariak miresten ditut,  
beraz, oiuhu ta bibala,  
eta txapela janzten duenak  
harro luzitu dezala! (bis)